

# dantza garaikidea

ikutu dantza taldea



manu lopez idazlea  
alizia haurrentzat

bidaiak  
lorenzo rojo bidaiaria. munduari so  
santiago-bidea & pilota  
bagare & bidaia. eskozia  
budapest

musika & artea  
neubat  
karlos gimenez

# CEGASA EVOLUTION

*Energiaren indar bizia*

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D



Ekipo elektronik berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharri erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasak emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



  
**CEGASA**  
INTERNATIONAL

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - Apdo. 3280 - 01013 GASTEIZ

Bezeroarentzako arreta telef.: 902 322.232 • E-mail: info@grupocegas.com • www.cegas.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**ahorik aho:**

**DANTZA GARAIKIDEA & IKUTU DANTZA TALDEA:**  
adriana gasco eta jorge ferreira

7-10.  
orr.

**MANU LOPEZ IDAZLEA:**  
alizia haurrentzat

11-13.  
orr.



**gaika:**

**MUNDUAN BARNA BIZIKLETAZ:**  
LORENZO ROJO, 'LONTXO'

14-17.  
orr.



18-19.  
orr.

**EUSKARA & GASTEIZ:**  
euskaltasunean lagun.  
gorka urturi & eneko de arza



20-22.  
orr.

santiago-bidea  
& pilota



24-25.  
orr.

eskoziara  
bagare-rekin

**GAINERA...**

**HAN-HEMENKA (4-5. orr):**

- agustin otsoa de alda, ez adiorik! (4)
  - iritzian (5)
  - caballito lauhazka bizian. gorra vierge
  - kaleak dio (6)
  - gasteizko jazzaldia
  - araba bixotzian (6)
- JON ZUBIAUR** pariza.

**KULTURAI SIALDIARI SO (26-35. orr):**

- agenda (26-27)
  - ibili munduan bidai erakusketa
  - idazleen gorpila (28)
  - depende VII. **EDU ZELAIETA**
  - historia zertzeladak (29)
  - arte txokoa (30-31)
- musika:  
**NEUBAT TALDE GASTEIZTARRA**  
**KARLOS GIMENEZ**
- bidaia (32)
- BUDAPEST**
- **BERTAKOARI SO!** (33)
  - **ERLANTZ URTASUN** historiagilearen txokoa: araba, euskalduna bezain nafarra
  - **ERREZETA** (33)
  - ontto & otarrainska brick-a
  - **geu-ren eskaintza:** (34)
  - geurekin mendira
  - **komikia** (35)
  - **IÑIGO SARASOLA**




**GEU** Elkartearen ekimenez sortua (1992)  
Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua  
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz  
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

- Zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate
  - Aldizkariako batzordea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
  - Kazetariak:** josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz
  - Argazkiak:** edorta sanz
  - Bestelako irudiak-bilaketa:** estitxu breñas glz. de zarate
  - Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estitxu breñas glz. de zarate
  - Itzulpenak:** edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri
  - Maketa:** patirke sanz eta david alvez
  - logoa:** io grafix
  - komikia:** iñigo sarasola
  - Kolaboratzaileak ale honetan:** gorra vierge, maite lekue, jon zubiaur, edu zelaieta, erlantz urtasun eta gamarrako ostalaritza eskola, edurne begiristain
  - Publizitatea eta Banaketa:** edurne begiristain
  - Publizitate arloko laguntzailea:** maite lekue
  - Sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
  - Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
  - Ale kopurua:** 2.500
- LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzikizunik.

Laguntzaileak:



**Azala ...**



Uda heldu da jada eta berarekin batera ohiko jarduna aldatzeko gogoia eta tartea. Badirudi eguraldi onarekin gorputza lozorrotik atera eta dantzan hasteko gogoia sentitzen duela. Horrexegatik ale honetan dantza garaiakidearen baitan murgiltzeko nahia, bai eta bidaiatzeko aukera desberdinetan ere. Hartu arnasa, dantzatu, bidaiatu... bizi.

argazkia: EDORTA SANZ

**GEU ALDIZKARIA** zure etxean jasotzeko bidea **HARPIDETZA** da. Urte osoko kuota: **18 euro.** (telefonoz - e-mailez)

AGUSTIN OTSOA DE ALDA,  
ZURE OMENEZ!

## Ez adiorik, Agustin!...



...Tupustean joan zara hutsune handi bat utziz ezagutu zintugunon baitan eta inguruan. Zu ez zinen ohartu, ez zenuen sufritu, eta horrek neurri batean behinik behin 'lasaitu' egiten gaitu. Zure bihotz handia, indar gehiago ez zuela, bat-batean gelditu zen bizitasun eta alaitasun handiko bizitza sendo bat, pertsona handi bat, geldiaraziz. Heriotzak dakarren min sakon eta lazgarria arindu nahian, une gogor hauen aurrean, zurekin izandako gertutasunagatik ezinbestekoa zitzaidan

nire eta Geu-ren izenean, zuri eta etxekoei lerro batzuk, omenaldi xume hau, eskaintzea.

Langile fina zinen eta gure egitasmu baterako zure burua eskaini eta zure borondatez inurrien modura lan egin zenuen. "Arabako Euskal Hotsak - Antecedentes del Euskara en Alava" erakusketa ez zatekeen posible izango zuk horretan lan egin izan ez bazenu. Orduak eta orduak sartu zenituen guri laguntzeko, ezere trukean... Dena eskaini zenigun une horretan eta zugatik izan ez balitz erakusketaren ametsak ametsa izaten jarraituko luke. Erakusketaren prestaketa eta muntaketan ezinbestekoa izan zinen! Egurrezko panelak, herrietarako egurrezko egiturak, itinerantziako muntatze eta desmuntatzeak, besteak beste... Artista bat zinela esaten nizun nik behin eta berriro, arazo tekniko guztien aurrean oztoporik ez zegoen zuretzat, konponbidea zenekarren beti... di-da! Benetan trebea... Eskerrik asko Agustín, bihotz-bihotzez, emandako guztiagatik.

Zuri esker Arabako euskararen historia tokirik toki, herririk herri ezagutarazi ahal izan da, euskarak esparru zabalagoa irabazi duelarik, zure bihotz zabaltasunari esker... zuri esker.

Antoñana, Maeztu, Legazpia. Hori izan zen zure ibilbidea jaio zinenetik hil artean; Antoñanan jaio, umetan eta gaztetan Maeztun bizi eta ondoren, beste arabar asko eta asko bezalaxe, Legazpira joan zinen beharrera, Patricio Etxebarria lantegira. Bertan zure emazte Milagros Gurrutxaga legazpiarrarekin ezkondu eta sendia handitu zenuten bizitzari sendotasunez eta zabaltasunez aurre eginez (hitz hauek guztiak Agustinen omenezkoak izateaz gain, era berean izan bitez emazte eta seme-alabei Geu-ren doluminik zinezkoenak adierazteko).

Gogoan dut Arabako Euskal Hotsak erakusketa Maeztun, zure herrian, jarri behar genueneko unea. Hura bai poza eta zirrara sentitu zenuena: euskarak Araban idatzitako historia zabaltzen laguntzeak harrotzen zintuen!!, are gehiago Mendialdean, zure jaioterrian... Gasteiz, Laudio, Agurain, Maeztu, Artziniega, Argantzun, Trebiño, Aramaio, Izarra... Hortxe agertzen zinen puntu-puntuan eta beti "aurkikuntza" edo ideia berri batekin muntaketa eta desmuntaketa lanak errazte aldera. Hortxe agertzen zinen beti gogotsu eta alai zure hoberena eskainiz.

Ezin ditzaket ahantzi, eta gainera ez dut nahi, zure alaitasuna eta txantxarako gogoa! Horretan bai ona zinela, Agustín! Txantxaz txantxa errazago egin zitzaigun erakusketak ekarritako lan gogor hura. Une atseginak izan ziren arras, bai, zure bihotz zabaltasunari esker. Apirilaren 28ko gauean zure bihotza gelditu, pausatu zen bat-batean... Kolpe gogorra benetan!!, alabaina zu ezagutzeko zortea izan genuenok gurekin eramango ditugu betiko zure alaitasuna, bizi-poza, indarra eta bihotz zabaltasun berezi hori. Bai eta zure irribarrea ere!

Zugatik eta sendiagatik, ele xume hauek omenaldi eta dolumin gisa.

**Ez adiorik, Agustín!!!**

**Estitxu Breñas Glz. de Zarate**  
**Geu aldizkariko zuzendaria**



## Caballito lauhazka bizian

Gure herriak gordintasun osoz biziki nozitzen duen gatazka politikoak sarritan hainbat eremutan abian jartzen diren borroka eredugarriak estali ohi ditu. Horren haritik, ez da makala ez Gasteizko CABALLITOk langileak zazpi hilabete hauetan irmo eta sendo mantentzen ari diren greba euren lanpostuak suntsi ez ditzaten.

Zazpi hilabete hauetan, luzea bezain polita suertatzen ari den borroka honen bitartez, multinazional bihozgabe (guztiak bezala) honetako langile gasteiztarrek beste behin ere duintasunaren esanahaia ulertarazi, eta gaur egun soilik ondo antolatutako langileek haien aldarrikapenak aurrera atera ditzaketela ikusarazi digute, une mingotsak orain arte aunitz izan arren. Izan ere, udazken, negu eta udaberri honetan faktore asko haien aurka izan dituzte beraien greba zapuzteko asmoz, besteak beste, multinazionalaren ankerkeria, herri erakundeen zabarkeria, ertzaintzaren oldartze basatiak, epaileen alderdikeria, botere ekonomikoaren zerbitzura dauden komunikabideak, e.a... Aitzitik, guztiak kale egin dute. Multinazionalaren zuzendaritzak pentsatzen zuen bi hiletan mendean hartuko zituela langileak eta euren aldarrikapenak bertan behera geratuko zirela. Usteak erdi ustel!

Erasoak eraso, CABALLITOk gizon eta emakumeek borrokarik gabe galduta daudela jakin badakite, eta horregatik ekin zioten greba amaigabe bati. Hartara, egunero Gasteizko karririk zeharkatuz pankarta baten gibelean beraien begiei darien duintasuna ikusteak nire erraietan behin baino gehiagotan zirrara mikatz bat sortarazi dit, une horietan agerian geratzen baita gure gizartean ezinbestekoa dela langileen

eskubideen alde borrokan jardutea. Azken finean, zazpi hilabete greban daraman langile batek lansariak hobetu ezezik, errespetua ere aldarrikatzen du eta hori izan daiteke gatazka honen giltzarrietako bat; "langileak gara, harro gaude eta errespetua zor diguzue".

Garai hauetan batzuek eta besteek aipatu egin dute klaseen arteko borroka jadanik bukatuta dagoela



eta ez daukala zentzu handirik grebei ekitea. Baina greba honek hautsak harrotu ditu eta bereziki belaunaldi gazteentzat bide berri bat ezagutzeko parada ederra izan da, izan ere, zazpi hilabeteko lan honek elkartasun hitzaren esanahirik ederrena suspertu egin du ezbairik gabe.

CABALLITOk grebalariek ez dute inongo protagonismorik nahi, ez eta komunikabideetan agertzeko grinarik ere. Baina kemena eta duintasuna uztartuz langile hauek Euskal Herriko gizartearen historia urrezko hizkiekin idazten ari direla beldurrik gabe aitor dezakegu.

**Gorka Vierge.**  
**ELAko Arabako idazkaria**

# GASTEIZKO 28. JAZZALDIA

Jazz nota gozok blaituko dute Gasteiz hiria uztailaren 11 eta 17a bitartean. Nazioarteko musikariak, jazzlari abangoardistak eta instrumentulari bertutetsuak dira 28. Jazzaldiko egitarauaren izar distiratsuenak. Eszenatoki desberdinak Jazzaldiaz gozatzeko, Mendizorrotz, Principal antzokia, tabernak eta Gasteizko karririkak. Honatx gasteiztarrek Jazzaldiari buruz esan digutena:



**Iciar Herran, kazetaria**

1. Bai oso gustuko dut Jazzaldia, nahiz eta urtebete baino ez daramadan Gasteizen bizitzen, eta hiru ekitalditara bakarrik joan naiz.
2. Iaz Van Morrisonen kontzertura joan nintzen eta aurten ere Mendizorrotzeko kontzerturen bat ikusteko asmoz nabil, zehazki zeinetara joango naizen oraindik erabaki ez badut ere.
3. Denetarik eskaintzen dio, giro ona, nazioartekoa; orokorrean oso bizia nabaritzen da Gasteiz Jazzaldiaren sasoiari.

**Enrique Torrejon, musikaria**



1. Bai, izugarri gustatzen zait Gasteizko Jazzaldia, baita jazz musika ere.
2. Kaleko jazzaz gozatu ahal izan dut orain arte, baina kontzertuetara joateko gogo bizia dut aurten. Paco de Lucia ikusi nahi dut, kontzerturik erakargarriena da niretzat.
3. Gauza asko ematen dizkio Jazzaldiak Gasteizi. Edozein adierazpen artistikok aberastasuna dakar.

Honetaz aparte, Jazzaldiak Gasteiz musika sare internazionalen kokatzen du eta kanpora begirako leiho bezala funtzionatzen du.

1. Gasteizko Jazzaldia gustuko duzu?
2. Kontzerturen batera joan ohi zara?
3. Zer eskaintzen dio zure ustetan Jazzaldiak Gasteizko hiriari?

**Aitor Goikoetxea, tabernako zerbitzaria**



1. Bai, atsegin dut, giro polita sortzen da Gasteizen.
2. Normalean kalean. zein tabernetan burutzen diren jazz kontzertutan parte hartzen dut. Aurten ere lan egiten dudan tabernan aste osoan zehar kontzertuak prestatu ditugu.
3. Kultura eskaintzen dio dudarik gabe, musikala batik bat eta kanpoko jendea erakartzea lortzen du.

**Jon Ander Garcia, langilea**



1. Bai gustuko dut eta orain dela urte batzuk kontzertuetara joan ohi nintzen.
2. Ez dut Mendizorrotzera joateko asmorik, hala ere, agian tabernaren batera hurbilduko naiz kontzerturen bat edo beste ikustera.
3. Jazzaldiak izena ematen dio Gasteizi eta kanpoko jendea erakartzen du gure hirira.

## Araba bixotzian

Jon Zubiaur



IKUTU DANTZA TALDEA

*josune velez de mendizabal*  
*argazkiak: edorta sanz*

Adriana Gasco bederatzi urterekin hasi zen dantza garaikidea egiten. “Beste dantza mota askotatik pasa nintzen eta honetan bukatu nuen”, dio egun 26 urte dituen gazteak. Jorge Ferreira beranduago hasi zen, ordea, 20 urterekin alegia. “Futbol, pala eta oro har mutilek egin ohi dituzten kirolez aspertuta heldu nintzen jarduera honetara -dio 32 urteko gasteiztarrak-. Nire arrebak dantza garaikideko klaseak ematen zituen sasoi hartan eta animatu ninduen”.

DANTZA  
 GARAIKIDEA

## elkarrizketa

Jorge eta Adriana Ikutu Dantza taldeko kideetako bi dira; besteak Ruth Berikoetxea eta Joseba Alvarez de Eulate dira. Taldea 1998 urtean sortu zuten, ordutik hainbat emanaldi eskaini dutelarik. Dantzatzeaz gain, klaseak ere ematen dituzte gizarte etxeetan. Dantza garaikidea definitzea gaitza dela diote,



**-Zuek ikasle izatetik irakasle izatera, bai eta zuen talde propioa osatzera ere heldu zarete...**

Bai, halaxe da. Gizarte etxeetan ikastaroak ematen ditugu eta aldi berean, Ikutu dantza taldean ere aritzen gara. Baina honetaz gain, norberak bere lana ere badu; ondorioz, ezin nahi beste tarteak eskaini dantzari. Baina bateragarriak dira bata eta bestea.

**-Edonork dauka aukera talde bat sortzeko?**

Bai, noski. Gogoia badago erraza da, jendearekin harremanetan jarri eta listo. Gasteizen giroa eta mugimendua egon badago,

Moaré taldea esaterako. Gainera daukan gauza ona da adin guztietakoek praktika dezaketela, ez baitira tasun zehatz batzuk, klasikoan bezala, behar, nahiz eta eginahala eskatu bai.

**-Gero eta jende gehiago apuntatzen da, moda kontua da edota orain arteko ekintza honekiko ezjakintasuna?**

Gorputza lantzea, jarduera fisikoa puri-purian dago gaur egungo gizartean. Dantzan ere gorputza lantzen da, baina horretaz landa, norberaren gorputzaren ezaguera badakar. Irudimena, bat-batekotasuna, erreakzioak, eta abarrekin ere jolasten da.



arabarrok euskarari BAI

[www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org)



[www.gazteabertzaleak.com](http://www.gazteabertzaleak.com)





pentsatzen den baino zentzu zabalagoa daukala azpimarratuz. “Joera asko izateaz gain, teknika eta musika mota ezberdinak erabili daitezke. Gure kasuan lurrarekin kontaktuan aritzen gara batik bat eta musika gabe egin ohi ditugu saioak”, azaltzen dute gazteek.



Adriana Gasco eta Ruth Berikoetxea



Joseba Alvarez de Eulate

Izan ere, iturri fisikoa baldin badauka ere, giltzadurak lantzea, espazioa, erritmoa..., bestetik, bide arrazoidunagoa ere jorratzen du, hala nola, argazkiak edo film bat ikusi eta interpretatu, irudimena, testuak... Gorputzak ematen dizkizun aukerak ezagutzen dituzu eta norberak bere gorputzaren hautematea lantzen du, hori dena buruarekin lotuta nolabait.

**-Zer ekarri die zuen bizitzetara dantza garaikidea ezagutu eta ikasi izanak?**

Modu progresiboan ikasi dugu eta guretzat zeharo osagarria da. Oso gustura sentitzen gara dantza egiten. Izan ere, ez baita pausoz pauso ikasten den zerbaitekin eta listo, ahaztu egiten dena, baizik eta, gorputzaren ikerketa ere bada. Gainera, bakarkako lanaz aparte beste batzuekin ere hartu-emanak lantzen dira eta interesgarria da oso.

**-Erraza al zaizue talde bezala emanaldiak lotzea? Zirkuiturik ba al dago?**

Egia esateko zaila da. Arrazoi bat da gure saioak 15 minutukoak direla, eta horrek emanaldia mugatzen du. Hemen, Gasteizen, ez

**-Zein da, hortaz, azkenaldi honetan hainbeste jende dantzan apuntatzeko arrazoia?**

Entzun dietelako lagunei akaso; ahoz aho da batzuek ere zabaltzeko modua. Batzuk “Un paso adelante” ikusita datoz klasera eta segituan konturatzen dira hori ez dela irakasten duguna (diote barrezka).


**-Zein da dantza garaikideak duen erakargarritasuna?**

Orain arte ikusi dugunagatik iruditzen zaigu hasieran jendea ezagutu gabe apuntatzen dela, alabaina ezagutu ahala engantxatzen dela.

**IRVSTA** TABERNA  
 poteo eta pintxoak  
 Mateo Moraza 19  
 Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ  
**ESPEZIALITATEA:**  
**Patata tortila • Otartekoak**

**ITYRRIETA**  
 Sagardotegia  
 Arraga auzoa.  
 Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO


OSTIRALETIK  
 IGANDERA IREKITA.  
 ASTEAN ZEHAR  
 ENKARGUEN BIDEZ.  
 ASTEBURUETAN:  
 HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK



dago horrelako emanaldi motzak egiteko zirkuiturik. Batez ere, orain artean, Bilbotik eta Arrasatetik mugitu izan gara, baita Donostiatik ere. Kanpora atera garenean harremanak egiten saiatu gara, halere horrek eskatzen du nolabait gure emanaldiak maizago berritu behar izatea, eta lehen esan legez ez daukagu nahi beste denbora dantzari eskaintzeko. Dena den, mugimendua nabaria da eta horren ildora Dantza Elkarte berria osatzen ari da. Honen helburu nagusia da dantza egiten dugun guztiok bat egitea eta erakundeen aldetik dirulaguntzak jasotzea, laguntzarik gabe ez baitago emanaldia finantzatzerik, bidaiatzerik, zure burua sustatzerik... etab.

**-Orain arteko ibilbideaz zer azpimarratuko zenukete?**

Guretzat orain arte egindako emanaldi moten artean kalean egindakoak dira bitxiak eta oparoenak, ikusleriarekin harremanetan jartzen garelako eta euren erreakzioa ikustea atsegin dugulako. Jendearen erreakzioak aztertzeko gure lagun batek ikuskizunak grabatzen ditu.



Kaleko arropaz goaz eta edozein tokitan jarri izan gara egiten; gure arteko konplizitatea hain da handia, ezen emanaldietan oso lagungarria baitzaigu.

**-Zertan ari zarete orain? Egitasmo berririk bai?**

Aurten ez dugu dirulaguntzarik jaso, beraz, dirurik ez badaukagu ere lasaiago gabilta epeekin. Bakarkako lanak egitea pentsatzen ari gara, baina oraindik ideia bat besterik ez da.

**Argazki - Estudioa**  
**Erramun**  
 Heradio Fourrier, 23 Inoa: 13 71 02 01006  
 Askatasun kalea, 5 Inoa: 26 19 91 01004

**Dalvez**  
 argitaratzeak  
 Tel. /Faxa: 945 24 52 69  
 Tfnoa. 652 77 65 09  
 dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

**BAR KLAKÉ**  
 KUTXA, 2  
 TFNO. 145883  
 GASTEIZ

**ARANBIZKARRA**  
 ZURE  
**AUTOESKOLA!**  
 Valladolid kalea, 16  
 Tfnoa.: 945 28 28 39  
 01002 Gasteiz

MANU LOPEZ GASENI, IDAZLEA:

“Aliziaren liburuek ez zuten ezertxo ere irakasten”



Haur eta gazte literatura arloko irakasle, idazle eta itzultzailea da Manu Lopez Gaseni (Balkobilko, 1961). *Jaun Agurgarria* eta *Andonio eta Maddalenen komediak* liburuez gain -besteak beste-, Lewis Carrollen obra nagusien enskarazko edizioak prestatu ditu: *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* (Pamiela, 1989), *Ispiluan barrena* (Pamiela, 1991) eta *Alizia haurrentzat* (Pamiela, 2004). Manurekin Aliziaren mundu magikoan mugiltzeko parada izan dugu.

**- Zer dela eta euskaratu dituzu Lewis Carrollen hiru liburu horiek?**

Betidanik izan ditut gustuko Carrollen liburu horiek, eta halako batean bururatu zitzaidan euskaratzen hastea, orain dela urte asko. Lanean jarri nintzen eta bide horretan garai hartako dirulaguntza bat eman zidaten itzulpenak egiteko; halaxe atara ziren *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* eta *Ispiluan barrena*. Orain dela 15 urte lehenengoa eta 13 urte bigarrena.

**- Eta gaztetxoei egokitutako hirugarren liburu hau?**

Hirugarren hau beste kontu bat izan da. Ikusita aurreko liburuek beren bidea eginga zutela, beste hau euskaratzea egokia zela pentsatu nuen. Liburu hau berezia eta ezezaguna da; Carrolllek berak *Lurralde miresgarrian* liburuari egindako moldaketa da, ume txikiarentzat, hau da, 0-5 urte bitartekoei zuzenduta ("The Nursery Alice"). 1889an lehenengo edizioa atara zen, eta bigarrena hurrengo urtean. Gero argitaletxeak XX. mendean zehar behin edo birritan bakarrik argitaratu zuen. Gaur egun liburu hori agortua dago, baita ingelesez ere.

**- Eta zuk nola eskuratu zenuen? Bigarren eskuko liburutegietan baino ez da aurkitzen egun.**

Interneten, [www.stellabooks.com](http://www.stellabooks.com) helbidean, bigarren eskuko haur liburu ingelesak

saltzen dituzte. Edizio honetarako John Tennielek berak koloreztatu zituen marrazkiak, jatorrizkoan zuri-beltzeko grabatuak zirelako. Beraz, kolorearen neurria hartzeko bi edizio eskatu genituen, eta zuzenagoa da kolorea Macmillanen edizioan, Doverreanean baino.

**- Denbora asko eman duzu liburuok itzultzen?**

Aurreneko bi liburuak euskaratzen urte pare bat edo hiru urte eman nituen. Azkena hilabete batean egin dut, oso azkar.

**- Zer dela eta argitaratu zuen Carrollek haurrentzat egokitutako bertsoia?**


Martin Gardnerrek Carrollen memoriak aztertu zituen, eta esan zuen jendeak eskatuta idatzi zuela moldaketa hori. Aurreneko liburura, batetik, matematikari moduan zituen kezka, matematika jolasak eta logika jolasak eraman zituen, eta bestetik, garai hartako hezkuntza sisteman erabiltzen ziren kantu moralistak aldatu zituen, ironizatuz, letra aldatuz, eta orduko kantuei barre eginez. Finean, barre egin zion bere garaiko hezkuntza sistemari, oso zorrotza zelako. Gainera, nahasketa handi samarra dago jatorrizko liburu hartan, fantasiaren generoa eta abentura nahasten direlako; ordura arte nahastu gabeko generoak ziren, eta Carrolllek nahastu egiten ditu *Lurralde miresgarrian*. Liburuak konplexua zenez errazteko eskatu zioten, amets moduan planteatzeko. Horretarako, umeentzako oso zailak izan zitezkeen kontu batzuk kendu edo aldatu zituen.

**- Beraz, lehen liburu hartako konplexutasuna eta anbiguotasuna baztertu egin zituen, modu samurrago batean azaltzeko.**

Bai, hala da. Eta luzeraz ere laburtu egin zuen.

**- Narratzailearen jarrera ere aldatu egin zuen, ezta?**

Bai, egia da. Aurreko liburuko narratzailea



**KIDS**

**APAINDURA**

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

## manu lopez

narratzaile orojakile arrunta litzateke, eta hemen, berriz, ahozko ipuinetako narratzailea da. Zuzentzen zaio irakurleari entzule balitz bezala, eta hori tipikoa da ahozko narrazioetan.

**- Zuk ere itzulpena egiterakoan gauza batzuk moldatu egin dituzu. Esaterako, Alice izena Alizia bilakatu duzu.**

Itzultzaileak hainbat erabaki hartu behar ditu, ezinbestean. Liburuen izenburuarekin edota pertsonaien izenekin erabaki bat hartu behar da. Aliceri nola deitu? Hori da aurreneko erabakia, hots, pertsonaiekin zer egin: ingelesez utzi edo gureru hurbildu. Hasieran ingelesez uzteko erabakia hartu nuen eta oraingoan hurbildu egin dut, Alicek arazoak sortzen zituelako, bistan denez. Esaterako, noren kasua deklinatzerakoan, Alice baldin bada, Alicen esaten da, baina idazteko Alice-ren idatzi behar da... Aliziarekin, berriz, halako arazoak ez dira gertatzen, eta deklinabide kasuak jartzeko errazagoa da. Beste pertsonaia batzuekin, aldiz, moldaketa askoz gogorragoak egin ditut. Bestetik, testuaren eta irudiaren arteko elkarriketari dagokionez, batzuetan testuak gauza bat dio eta irudiak beste zerbait, eta orduan erabaki bat hartu behar da. Kasu nabarmenak daude: esaterako, pasarte batean narratzaileak esaten du bost arrosa zeudela, baina irudian oso nabarmena da sei direla. Orduan,



zer egin horren aurrean? Bada, sei zirela jarri nuen. Horrelako aldaketak egiteko eskubidea dugu itzultzaileok.

**- Zein da liburu honen helburua? Umeek amets egitea, hausnartzea akaso?**

Lehenengo xedea da Aliziaren historia umeengana helaraztea, umeei irakurgarri egitea, aipatu ditugun zailtasun horiek kenduz. Hortik aurrera, beharbada egunen batean gaitasuna dutenean irakurriko dute bertsio osoa; hori ez dago jakiterik...

**- Aliziaren istorioiek irakaspenen bat ba al dute? Moralejarik? Mezurik?**

Carrollek berak honakoa esan zuen: "Aliziaren liburuak ez du moraleja edo irakaspenik; egia esan, ez du ezertxo ere irakasten". Alegia, dibertimendu hutsak dira, eta hori da liburu hauek ekarri berritasuna; ordura arte haurrentzako liburuak idazten ziren moralala lantzeko, jokabide zuzenak jorratzeko, edo didaktika aldetik irakasteko; liburu didaktiko-moralak ziren. Liburu hauek, ordea, guztiz kontrakoa ekarri zuten, ez dute ezer irakasten. Ume aske bat aurkezten du, mundu miresgarri batean bere kabuz ibiltzen dena, helduen logika hori askotan onartzen ez duena... Alde horretatik berritasun handia izan zen, eta horregatik maite dugu Alice.

### ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

**GARMENDIA**

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



**XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA**

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



**gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak**

### PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA  
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana  
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ  
Telefona: 945 26 38 74




**LORENZO  
ROJO  
'LONTXO'  
BIDAIARI  
GASTEIZTARRAREN  
ABENTURA:**

Orain dela ia 7 urte hasi zen Lorenzo Rojo gasteiztarraren abentura. Geroztik, 72.000 kilometro egin ditu bizikleta gainean, 4 kontinente eta 38 herrialde zeharkatuz eta kultura eta ohitura desberdinak ezagutuz. Familia eta lagunak bisitatzeko grinak Gasteiza itzularazi zuen berriro ere abenduan; izan ere, bidaia ez da bukatu eta ekainaren 18an Europako iparraldera abiatu zen. Auskalo zenbat herrialdetatik pasako den etxera berriz ere bueltatu artean.

saioa fdz. de arangiz  
argazkiak: edorta sanz

**“Bidaiatzen askatasun  
sentsazio bizia  
eskuratzen dut”**





**H**auxe da abenturazale baten istorioa. Bere izena Lorenzo Rojo da, baina lagunek Lontxo edo Txentxo esaten diote. Orain dela 42 urte Gasteizko Adurtza auzoan jaiotako euskara irakasle honek Latinoamerikarekin lotura berezia duela aitortzen du eta bertara itzultzeko nahia eta abentura gogoia izan ziren ezusteko bidaiak izugarri bati hasiera emateko arrazoiak. Honela, 1997ko ekainaren 1ean Lontxok bere bizitzako abenturari ekin zion. Bizikleta bidaiak bakartzat hartu eta Amerikako Estatu Batuetako Seattle hirira abiatu zen, bertatik hegoalderako bidea hartzeko asmoz. Estatu Batuak, Mexiko, Kuba, Ertamerika, Kolonbia, Ekuador, Peru, Bolivia, Brasil, Uruguai, Argentina eta Txile bisitatu eta ezagutu zituen, herrialde hauetako jendeak, usainak, ohiturak barneratuz.

Mendizalea eta bizikleta maitalea izaki, paisaia ezin hobek topatu zituen bidean, besteak beste, Kolonbia eta Boliviako basoak eta Patagonia. Bizikleta oso polita dela uste du Lontxok, astiro bidaiatzeko aukera eta autonomia ematen duelako.

“Bidaiatzea leiho bat irekitzea bezala da, zure mundutik irtetea, finean, gauza

berrietara ate bat zabaltzea. Hori da niretzat abentura, norberaren mundutik at egotea, hurrengo egunean biziko duzuna ez ezagutzea”, esan ohi du Lontxok.

Esan eta egin. Hasiera batean Amerika zeharkatzeko urtebeteko bidaiak izango zena, ia sei urte eta erdiko munduari bira bilakatu zen. Amerikan hiru urte eta erdi eman zituen, gehien atsegin zituen herrietan denbora gehiago pausatuz. Uruguaietan, esaterako, hilabete asko eman zituen, giro oso ona baitago bertan. Hango gizartea eta gurea antzekoak direla dio gure bidaiariak, bertako eta hemengo baloreak berdintsuak baitira.

Ondoren, Suaren Lurralderaino heldu zenean, Ozeaniara eramango zuen hegazkina hartzea erabaki zuen, abenturari jarraipena emanez. Honela, arras desberdinak diren kultura eta bizimoduak atea zabaldu zien. Urtebete igaro zuen Zelanda Berrian eta Australian. Bidaiaren jarraipenak ekarritako ustekabeari aurre egin ahal izateko, 4 hilabete eman zituen fruituak biltzen Zelanda Berrian. Lontxo merke bidaiatzen duen ibiltaria dugu, gehienetan akanpatu eta janaria bere kontu prestatu ohi du. Hilero 300

euro inguruko aurrekontua izaten du eta noizbehinka, oso garestiak ez diren luxuak ere hartzen ditu, esaterako, hostal edo jatetxe batera joan. Horrez gain, gerora oso erabilgarria egingo zitzaion ingelesa ikasi zuen.

Bertatik, Asiara mugitu zen, Indonesia, Malasia, Thailandia, Laos, Kanbodia, Txina, Tibet, India, Nepal, Pakistan, Iran eta Turkia zeharkatuz, Europako atetara heldu arte. Ibilbide luze honetan, lagun eta bidaiak asko topatu zituen, tokian tokiko hizkuntzak ikasten saiatu zen eta beste janari, ohitura eta jendeak ezagutu zituen.

### Une onak eta txarrak


Denbora luze honetan, Lontxok makina bat memento on eta txar bizi izan ditu, hala ere, une larririk pasa ez duela dio, hau da, ez du lapurretarik, ez istripurik, ez gaixotasunik pairatu. Une onak ordea, asko izan dira. “Oso sentipen biziak izan dira eta hori da nire ustez bidaiaren motorra. Bidaiatzean eskuratzen duzun askatasun sentazio handia nabarmenduko nuke, hemen bertan sentitzen ez nuen”, dio Lorenzok. Horrez gain, bizitzaren bridak norberak daramatzala sentitu du, norbera bere denboraren eta erabakien



## Lontxoren bidaia



H I M A L A I A  
K U B A  
P A T A G O N I A  
M E X I K O  
E V E R E S T  
T I B E T



### Lontxoren txoko bereziak

Asko dira Lontxok bisitatu dituen herrialdeak, alabaina, guztiek ez dute eragin berdina izan. Latinoamerikarekin lotura berezia izaki, bertako herrialdeak oso ditu gustuko. Bere aburuz, gauza amankomun gehiago ditugu hango gizarteekin beste batzuekin baino, ez bakarrik hizkuntzagatik, baita historiagatik ere. Uruguai, Mexiko eta Argentina maite ditu oso.

Bestetik, Laoseko lasaitasuna atsegin du eta bertako jendeak zoriontsu zirudiela du laket. Tibeti buruz, ametsa dela dio, itzelezkoa, goieretan galduta eta isolatuta dagoen munduko beste txoko bat dela, alegia. Gainera, txirindulari batentzat leku aparta dela dio, bere argia eta garden-tasunagatik.

Kolonbia, Bolivia eta Patagonia bizikletaz ibiltzeko zoragarriak dira bere ustetan, bertako pasaiak eta natura harrigarriak baitira.

jabe dela, alegia. "Nire tokian nengoela sentitu dut, bizikleta gainean, eta hori oso sentipen polita da", aitortzen du. Ildo horretan, abentura misterioarekin oso lotuta dagoela uste du gure protagonistak: "Bizitzan misterioa sentitzea garrantzitsua da, hau da, gauzak ez daudela guztiz erabakita eta ustekabeak daudela pentsatzea".

Bestetik, munduan barrena ibiltzeak zeharo ezberdinak diren ikuspegi bi izatera eraman du Lontxo. Batetik, mundua oso toki ankerra dela pentsatzen du, bidegabekeria, desberdintasun eta norberekeria asko dagoelako. Bere ustetan, gauzak ez doaz hobera. Aitzitik, hainbeste urtetan mundutik barna ibili ostean, edonon ongi etorria sentitu da. "Ez naiz inoiz deseroso, ez mehatxatua sentitu. Leku guztietan jende ona topatu dut. Hortaz, mundua toki ederra da, ongi etorria senti zaitezke edonon... nolana ere, beste ikuspegiaren ere sinesten dut".

### Abentura ez da amaitu

Sentipen eta gogoeta hauekin guztiekin heldu zen Lontxo Europako ateetara eta bere tokia bizikleta gainean munduan zehar ibiltzea zela ikustean, bidaia

amaitu ez zela erabaki zuen. Hala, familia eta lagunak bisitatzeko geldialdia egitea beharrezkotzat jo zuen eta Gasteiza abiatu zen. Bizikleta, ostera, Frantzia utzi zuen, bizikleta Gasteizeraino ekartzea bidaia bukatzea bezala izango zelakoan.

Bere herrian ia sei hilabete egon ostean, berriro ere alde egiteko garaia heldu da eta igaro den ekainaren 18an bidea berrartu zuen. Bizikleta jaso eta Europako iparraldera abiatu zen. Udazkenera bitartera Danimarka, Finlandia, Suedia eta Norvegiatik ibiliko da, Iparraldeko Lurmuturrera heldu arte. Ondoren, Ekialdeko herrialdeen txanda izango da, besteak beste, Estonia, Letonia, Lituania, Polonia, Txekia eta Eslovakia zeharkatuko ditu. Beti bezala, ez du ez denbora eperik, ez ibilbide zehatzik zehaztu, halarik ere, ideia bat dabilkio buruan, Afrikara abiatzea, hain zuzen. Bere asmoa Turkiako hegoaldeko Egiptora pasatzea da, Siria eta Jordania zeharkatuz, ondoren Afrikako ekialdetik Hegoafrikaraino heltzeko.

Oraindik ez dakigu Afrika kontinentea bizikleta gainean ezagutuko duen ala ez, dena den, aurrekariak ikusirik ez dirudi zaila izango denik halako abenturazale handi batentzat.



Etxean eserita denbora luze eman ezin duen ipurterre horietakoa da 24 urteko gasteiztar hau. Alaia, naturala eta dibertigarria Gorka Urturik lanak uzten dion aisialdian (material elektronikoa kudeatzen dabil) mendia du bere lehendabiziko zaletasuna, baita edozein kiroletan aritzea eta euskal dantza praktikatzea ere. “Azken hau astean bost egunetan egiten dut”, dio umorez.

## Gorka Urturi, naturaltasunak eta umoreak bat egiten duten laguna

- **Duzun biziorik handiena?** Ez dakit bizioa den edo, baina... edozertarako deitzen nautela gutxitan esan dezaket ezetz.

- **Bertutea?** Alaia naizela.

- **Zer eskatzen diozu bizitzari?** Ahalik eta pozen bizitzea.

- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Plan bat txikikerien erruz bertan behera geratzeak amorratzen nau, baita gizarteak dituen arauetatik kanpo aritzeak dakartzan ondorioek ere. Hitzeko pertsonak eta garbiak direnak gustatzen zaizkit.

- **Geu Elkartearen eta Aldizkariaren berririk bai?** Bai, ia sortu zenetik. Ikastolan ezagutu nuen OHoko irakasle baten bitartez.

- **Egunkari bat?** Berria, euskalduna delako eta informazioa oso ondo lantzen duelako.

- **Telesaierik?** Telebista gutxitan ikusten badut ere, baten bat aipatu behar izatekotan “Goenkale” esango nuke. Batez ere euskaraz delako, euskara jatorra eta jasoa eta horrela nire euskara lantzeko balio dit.

- **Jaki gozoren bat?** Euskal pastela.

- **Beldurrik?** Zipaioei.

- **Oporrak non eta zertarako?** Mendian, edota bestelako kirola egiten eta beti ondo pasatzeko.

- **Liburu bat?** Ez daukat astirik irakurtzeko, baina Geu aldizkaria irakurtzen dut.

- **Kolore bat?** Ortzadarra naiz, baina betidanik gorria gustatu izan zait gehien.

- **Musika gustukoena?** Buf!, musika ikaragarri gustatzen zait. Ahal banu egunero egongo nintzakete entzuten. Denetarik atsegin dut, batzuk aipatzearren... Vivaldi klasiko potenteetatik Tapi eta Leturia bezalakoetara...

- **Animalia bat?** Txakurra.

- **Gasteizek duen onena?** Harrigarria badirudi ere jendea esango dut. Oso itxiak garela diote, baina ezagutzen gaitzutenean jende ona garela ere bada egia. Bestetik ere, hiriak dituen baliabideak azpimarratuko nituzke, denetik egin baitezakezu.

- **Eta txarrena?** Gero eta handiagoa egiten ari dela hiria eta zena zentzu batean desegiten ari dela.

- **Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?** Segun eta non bai. Gauza da ohituraz edo, lehendabiziko hitza gazteleraz egiten dugunean, gero pertsona hori hizkuntza horrekin erlazionatzen dugula eta gero aldatzea zaila da.

- **Amets bat?** Nire gurasoak euskaraz ikasten jar daitezten. Aspaldian esan didan zerbait da hau. Ez diot hitz egitea, horrek prozesu luzea eskatzen duelako, baizik eta soilik ikastea.

- **Amesgaiztoa?** Euskal Herri deuseztatua ikustea.

- **Zer eskatzen du herriak?** Aisia.

- **Nola ikusten zaitu jendeak?** Akaso gustuko ez ditudan gauzak egitera behartzen nautenean amorratzen naizenez, jendeak burugorria naizela pentsa dezake, nahiz eta ni oso irekia naizen.




# Eneko de Arza, musika munduan buru-belarri

- **Duzun biziorik handiena?** Musika.
- **Eta bertutea?** Lagunartekoa izaten saiatzen naizela.
- **Bizitzari zer eskatzen diozu?** Egia esan, bizitzako une honetan ez dakit zer nahi dudan.
- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Indarkeriak.
- **GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai?** Bai. Lehen banatzaile moduan lan egiten nuenean sarritan zuen bulegoetara joaten nintzen.
- **Egunkari bat?** Gara eta Berria; azken hori euskara praktikatzeko.
- **Telebista saio bat?** Telebista oso gustuko dudan arren, azkenaldian ez nau gehiegirik motibatzen.
- **Fobiarik, beldurrik?** Segurtazun eza.
- **Oparrik non eta zertarako?** Lekuak ez dit ajola. Opor luzeak nahiko nituzke,

- bidaiatzeko eta nire erritmora gauzak ezagutzeko.
- **Eta nora ez zinateke joango?** Sasoian dagoen edozein tokitara.
- **Liburu bat?** Carlos Desastre-ren El corsal de sastre.
- **Kolore bat?** Granatea.
- **Musika talde bat?** Keziah Jones eta A perfect circle.
- **Zer da Gasteizek duen onena?** Oraingo txikia dela.
- **Eta txarrena?** Etxebizitzaren prezioa.
- **Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?** Zaila da, baina baietz uste dut. Norberak asko jarri behar du.
- **Amets bat?** Musikatik bizitzea eta astialdirako denbora asko izatea.
- **Amesgaizto bat?** Lantoki batean bukatzea.
- **Zer eskatzen du herriak?** Erabakitze askatasuna.

Musika da Eneko de Arza 26 urteko gasteiztarak duen zaletasun gogokena. Soinu ikasketak egin zituen Andoaingo Zine eta Bideo eskolan eta orduz geroztik denetan egin du lan: soinu teknikaria, banatzailea eta lantegi bateko behargina izan da. Egun, ordea, tabernari gisa

jarduten du Hala Bedi tabernan. Dena dela, denbora libre guztia musikari eskaintzen dio: NAUT taldeko bateriajolea baita. Dagoeneko hiru kanta grabatu dituzte, eta Euskal Herriko txoko askotan zuzeneko emanaldiak eskaintzen dabilta. "Orain arte motibatzen nauen gauza bakarra da", diosku.



edurne begiristain  
argazkiak: edorta sanz

# DONEJAKUE-BIDER



Hamaika gizonez osatutako koadrila egiten dute. Guztiak 50 urtetik gorakoak. Arabarrak. Pilotazale amorratuak. Aisialdirako denbora dezente dutenez, lantzean behin irtenalditxoak antolatu ohi dituzte, betiere pilota oinarri hartuta.

Koadrila honek pilotarekiko duen zaletasuna aspaldikoa da. Batzuek bizitza osoa daramate frontoietan jolasten, 65 urteko Miguel Angel Goñik eta 56 urteko Fede Ortigosak bezala. Duela urte asko elkar ezagutu zuten, pilotarekiko zaletasunak batu baitzituen. Elkar ezagutu zutenetik, Zaramaga auzoko frontoian pilota partiduak jolasten dituzte astelehenero. Orduz geroztik, elkarte gastronomiko batean elkartzen hasi ziren, eta orduantxe hasi zen mamitzen euren arteko adiskidetasuna. Hain justu ere, maiz egiten dituzten afarietako batean otu zitzairen Donejakue-bidea egitea. Esan eta egin. Koadrilako bakoitzak ardura bat hartu zuen (ostatuak bilatzea, herrietako Udalekin hitz egitea pilotalekuetarako baimenak lortzeko, garraio

motaren bat bilatzea...), eta denbora laburrean Santiagorako ibilbiderik pilotazaleena antolatu zuten.

Maiatzaren 7tik 15era bitartean egin zuten ibilbidea, pala eta pilota eskuetan. Orreagatik irten eta Santiagorainoko bidea etapaka egin zuten. Orora, zazpi etapa egin zituzten: Orreaga-Naiara / Naiara-Burgos / Burgos-Carrion de los Condes / Carrion de los Condes-Astorga / Astorga-Villafranca del Bierzo / Villafranca del Bierzo-Sarria / Sarria-Santiago. Egunero batezbeste 10-20 bat kilometro egiten zituzten oinez, goizetik eguerdira bitarteko tartean. Ostean bazkaldu egiten zuten, eta atsedean txikia hartu ondoren, eguneko mementorik irrikagarriena heltzen zen: herriko frontoian pilota partida

**Udaberria**  
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65  
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

*Confecciones*  
**Pinedo**  
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ  
Tfnoa.: 945 23 39 90

**EYSKAL LABELA LASAGABASTER**  
harategia eta urdaitegia

Gasteizko haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24  
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

**ARTEPAN**  
Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2  
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

**Xabier**  
taberna

musika ona eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Uetzal**

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantuiko artoan) Tfnoa: 945 25 03 52

**GEU**  
GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

**PUBLIZITATEA**  
945 22 21 53

**GORETTI**  
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14  
(San Migeleko pasabidea)  
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

# IK PILOTAZALEENA

Aurten Donejakue edo Santiago-bidea egin dute, baina noski, pilota ahaztu barik.

Izan ere, ibilbidean barna frontoia zegoen herrietan euren artean pilota partiduak botatzeko asmoz egin dute Orreaga eta Santiago arteko bidea.

botatzea. "Guretzat unerik desiragarriena zen, eta gainera oso serio hartzen genuen, baita janzkeran ere: fraka zuriak, gerrikoa... alegia, pilotariz janzten ginen", diosku Fede Ortigosak. Nola ez, epailea, txanpona eta argazkia ere ez ziren falta.

## Prestaketa lanak

Nolanahi ere, pala partida horiek jolastu ahal izateko, aldez aurretik lan eskerga egin behar izan zuten koadrilakoek, izan ere, herri guztietan ez baitzen frontoirik. Hala, azken etapan, Santiagon, ez zuten pilotalekurik topatu, eta Coruñaara joan behar izan zuten azken partida jolastera. Dena dela, Galiziako pilota federazioko presidentea ezagutzen zuten, hark

lagundu egin zien behar zuten guztia prestatzen.

Horretaz gainera, ahalegin bereziak egin zituzten estalitako frontoia aurkitzeko. Hain zuzen ere, palan jolasterakoan pilotek erraz egiten dute ihes, eta gainera, udaberri sasoi horretan eguraldia nahasi samarra izan zenez, euria edo elurra egiteko arriskua zegoen. "Harat-honat ibili nintzen dena presta genezan, eroaren pare; Xacobeo urtea denez, den-dena okupatuta baitzegoen...", azaldu digu Miguel Angelek. Azkenez, ordea, behar zuten azpiegitura guztia antolatzea erdietsi zuten, eta Santiagorako ibilbiderik dibertigarriena egin ahal izan zuten.

Prestaketa fisiko berezirik ez zuten egin behar izan ibilbidea egiteko, guztiak



**Zure denda erotikoa**

**SEX**

**PITTILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ  
Tren geltokiaren ondoan  
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA  
OIARTZUN

Obren egite eta zuzentzea

**ALTUNA Estudioa**

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 beheko - 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

DISCO-BAR  
**PITXER**

Sta. Luzia kalea, 5

bar • restaurante • albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ  
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

**IZARRA TABERNA - JATETXEA**

BITORIANO - ZUJA (ARABA) • 945 430 073

**XIXILU JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2  
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

**UZTINTZA**

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA  
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

nahiko kirolzaleak direlako. "Ibiltzen apur bat entrenatu ginen, oinazpiak minduta gera zitezten beldur baikinen...", dio Fedek. "Gainera pilotan gihar batzuk lantzen dituzu, eta ibiltzean beste batzuk", gaineratzen du Miguel Angelek.

### Bazter aberatsak eta anekdotak

Pozik eta gustura daude Fede eta Miguel Angel bizitako esperientziarekin. Gainera, ez zuten aparteko arazorik izan, eta dena primeran atera zitzairen. "Zurrunka egiten zuenarekin lo egin behar izan zuena salbu, gainontzekoa ongi atera zen... kar-kar...". Barrezka orotarazten dituzte bi lagunek ibilbidean barna izandako pasarte dibertigarrienak. "Normala zen noizik behin gure artean haserrealditxoak izatea, azken buruan 11 lagun ginen eta eguneroko bizitza elkarrekin egin behar genuen...". Eguneko tentsio eta adrenalina guztia, baina, gaez ateratzen zuten, musean jolasten.

Anekdotaxo horiek albo batera utzita, Santiago-bidearen edertasuna nabarmentzen dute Miguel Angelek eta Fedek. Aberastasun handiko bazterrak ikusi dituztelako: "Monumentu askotariko lekuak dira, herri gehienek arteaz gozatzeko abagunea ematen dute, baina guk ez genuen apenas astirik horretarako". Fedek tokirik ederrenak Euskal Herrian ikusi ditu, Orreagatik Zubiri arteko bidean. Lugo eta Carrion de los Condes bezalako herrietan ere inguru izugarri politak daudela gaineratzen du.

### Pilota birizik mantentzeko modua

Aurten Donejakue-bidea egitea otu zaie, baina aurreko urteetan bestelako txangoak ere prestatu izan dituzte, pilota ahanzi barik, jakina. Koadrila honen xedea pilota birizik mantentzea da, mantendu ere, gaur gutxi praktikatzen



delako. Halaxe uste du, bederen, Fedek: "Gero eta zale gutxiago daude, gainera jende gazteak nahiago du teniseko erraketa batekin kirola egitea...". Goñi haratago doa: "Erraketa hartzea ere gehiegi da askorentzat, futbolak eta saskibaloiak gainontzeko kirolak ezabatu baititu".

Santiago-bidea eginagatik, bestelako txangoak egiteko gogoia ez zaie oraindik kendu. Buruan dute, esaterako, monasterioen ibilbidea edo Zilarraren bidea egitea. Ziurrenik hurrengo afarian erabakiko dute, Zaramagako frontoian pilota partida bat jolastuz geroz.

## SANTIAGO-BIDEA, ETAPAKA

- 1- Orreaga (Nafarroa) - Naiara (Errioxa)
- 2- Naiara (Errioxa) - Burgos
- 3- Burgos - Carrion de los Condes (Palentzia)
- 4- Carrion de los Condes (Palentzia) - Astorga (Leon)
- 5- Astorga (Leon) - Villafranca del Bierzo (Leon)
- 6- Villafranca del Bierzo (Leon) - Sarria (Lugo)
- 7- Sarria (Lugo) - Santiago

**SARLU**  
Zure arropa eta oinetakoak  
www.sarludenda.com  
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

**BARRAL**  
TABERNA  
Eradikitzen, astrolametik ostaldea  
**JANTOKI**  
**BEGETARIANO**  
SAN KRANTZESKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4  
01001 - GASTEIZ  
TEL. 945 27 65 33

**TXUKUNA**  
EUSKAL HERRIKO EHUNAK:  
bainu-batak, oihalak,  
sukaldeko zapiak,  
patchwork ohe-estalkiak...  
Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

**HEGOALDE**  
Euskalategia  
Matrikula zaitetz !!  
Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnua 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ

**MARRAZKIAK · KOADROAK**  
**MOLDURAK**  
**LAMINAK**  
  
**zurbeltz**  
 Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**GASTEIZKO BATZOKIAK**

ABENDAÑO	ERDIALDEA	LAKUA	ZARAMAGA
Enrique Eguren, 5-7 Tfnoa. 945242852 945220715 (jantokia)	Santa Barbara pza. z/g Tfnoa. 945203312 945280997 (jantokia)	Biltzar Nagusien k, 54 Tfnoa. 945175651 945176406 (jantokia)	Gasteiz kalea, 18 Tfnoa. 945288068

Taldeentzako bazkariak eta afariak prestatzen dira, aurretik erreserba eginez

**EL BAR Kutxi**  
  
 eguneko menua

**DIBUtec**  
 Paper Bezeziak  
 Arte Ederretarabko Materiala  
 Inki jet original eta birziklatuak  
 Bulego Materiala  
 Enkuzdemaztook  
 Plastifikaziook  
 Kamiseten Estampaketak  
 Kopiak  
**azkarprint**  
 Inprimaria / Inprimategia  
 Edozein inprimaketara  
 mola.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

**LA RIOJANA**  
*jatetxea*  
 on egin!  
 bokatak,  
 pintxoak,  
 kazuelatxoak  
 Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

*Bacalao Giraldo*



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

*Bacalao Giraldo*

**ERAMAN ETA JAN**  
 "kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
 Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza  
 GASTEIZ

 **ERROTA**  
 HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ  
 Tfnoa. 945 213 390 • Faxa. 945 213 390  
 e-mail: errotadental@euskalnet.net

eguzkitarako nobedade



eguzkitarako nobedade guztiak Mendia Optikan, ... zatoz ikustera

ZERBITZU OPTIKOETAN  
**1a**

**MENDIAOPTIKA**  
 DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria plaza  
 Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
**GASTEIZ**

# ESKOZIA

## I b i l b i d e a

**1. eguna** Bilbo, Donostia, Iruñea eta Gasteiz hirietatik irteera. Frantzian barrena abiatu eta Britainia Handian sartu, La Manchako Kanala gurutzatu.

**2. eguna** CAMBRIDGE. Goizean heldu eta denbora librea unibertsitatez betetako hiria ezagutzeko edo txalupa alokatu eta ibaian zehar paseatzeko.

**3. eguna** CAMBRIDGE-EDIMBURGO. Arratsaldean heldu. Denbora librea, parte zaharretik ibiliz hiri hau ezagutzen hasteko edo bertan dauden kontaezinezko museoetako batzuk ikusteko.

**4. eguna** EDIMBURGO-GLASGOW-EDIMBURGO. Glasgowerako txangoa. Bertan gaudela, gure iritziz Arte Galeria, Museoa nahiz Katedrala ikusgarriak dira edo, nahi izanez gero, merkatuak eta taberna alatsuak bisita daitezke.

**5. eguna** EDIMBURGO. Egun librea. Bitartean, hiri gainean dagoen Gaztelua ikus daiteke, baita inguruko Printzesa Street pasealekuan barrena ibili ere. Halaber, Whisky Eskoziarraren zentrua ikusgarria ere bada.

**6. eguna** EDIMBURGO-INVERNESS. Goizean goiz irten, Invernessera eguerdian helduz. Egun librea Lur Garaietako edo Highlands-eko hiriburua ezagutzeko, Udaletxeko aldean dagoen Gaztelua ikusgarria delarik.

**7. eguna** INVERNESS. Egun librea hirian barrena ibiltzen jarraitzeko edo inguruetara txangoren bat egiteko benetan mirezgarriak diren bazterrak eta ikuspegiak ezagutzeko.

**8. eguna** INVERNESS-FORT WILLIAM-OBAN. Goizeko lehen orduan irten, Ness lakua zeharkatu eta bertako gazteluan gelditu ondoren, Fort Williamera helduko gara. Hiri hau Ben Nevis (irlako mendirik altuena) azpian dago. Arratsaldean Obanerantz jarraituko dugu.

**9. eguna** OBAN. Egun librea. Bertan gaudela, itsasuntziren bat har daiteke Mull, Islay edo Cobonsay (Barruko Hebridak) irletara edo Barra, nahiz South Uist (Kanpoko Hebridak) irletara joateko.

**10. eguna** OBAN. Egun librea urrezko garaietako aztarnak dituen bainuetxe-hiri hau ezagutzen jarraitzeko. Gauz hegoaldera irten, Ingalaterran abiatuz baina Galesen sartuz Chester hirira heltzeko.

**11. eguna** CHESTER. Goizean heldu eta egun librea Erdi Aroko hiri hau ezagutzeko. Ikusgarriak dira bertako Katedrala, harresiak ibilaldira bat emateko edota rows-ak edo erdigunean dauden merkatal zentruak.

**12. eguna** CHESTER-LONDRES. Goizean goiz irten eta eguerdian heldu. Arratsalde librea hiria ezagutzen hasteko edo erdigunetik ibilaldira bat emateko.

**13. eguna** LONDRES. Egun librea. Honako hauek ikus ditzakegu: Buckingham Palace, Westminster Katedrala, Parlamentua, Big Ben ... edo, garaiz ibiliz gero, hiritik kanpoko Greenwich Parkera joan gaitzke.

**14. eguna** LONDRES. Egun librea bisitak egiten jarraitzeko. Ikusgarriak dira Madame Tussaud's-en Argizari-Museoa, Planetariuma, London Zoo. Arratsaldeko azken orduan La Manchako Kanalarantz.



Irteera eguna: **abuztuaren 12a**

Prezioa: **275** (autobusa) + kanpinetako

Izena emateko: **BAGARE EUSKAL TOKIA** (945251084).

**IBILTARI BIDAIK:** (94 447 25 26)



Eskozia Britainia Handiaren menpean dagoen herria dugu. Herri hau kontrastez beteta dugu. Honela hegoaldeko mendiak eta iparraldeko malkartsu eta bakartiak bisita ditzakegu. Edimburgo eta Glasgow dira hiri nagusiak. Edimburgon gaztelu historikoak, erdi aroko kaleak eta XVIII. mendeko eraikinak ikus ditzakegu. Glasgoven, aldiz, modernismoa da nagusi.

**Ezkoziaren azalera:** 78772 km<sup>2</sup>.  
**Populazioa:** 5.100.000 biztanle  
**Hiriburua:** Edimburgo (408.000 biztanle)  
**Etniak:** anglosajoiak eta zeltak  
**Hizkuntzak:** ingelesa eta gaelikoa  
**Ordua:** GMT  
**Txanpona:** libra

# Eskoziako gaelikoa



Lehendabiziko tribu zeltak Eskozian K.a. 700. urtean agertu baziren ere, Eskoziako gaelikoaren historia aro honetako V. mendean hasi zen Irlandatik heldutako tribuek hizkuntza eraman baitzuten.

Hizkuntzaren urrezko garaia X. mendetik XII.era bitartean izan zen. Garai hartan, independientea zen eta gaelikoa erabili ohi zuten gorteetan, elizgizonek, legegizonek, e.a. XV. mendean galera hasi zen. Hurrengo mendeetan, ingelesak heldu ziren eta bere hizkuntza ere inposatu zuten.

1901. urtean 230.000 hiztun baziren ere, gaur egun bost miloi biztanleko herri honetan 66.000 lagunek baino ez dute hitz egiten. Hala ere, azken urte hauetan badirudi hizkuntzaren berpizkundea hasi dela. Honela gaelikoaren lehenengo gelatxoak pasa den mendearen laurogeiko hamarkadan sortu ziren guraso ausart batzuei esker. 1998-99 ikasturtean 2.200 haur baino gehiago ziren gaelikoz hezitako umeak. Administrazioaren laguntza izan arren, oraindik luzea da jorratu beharreko bidea. Bejondeiela!



## Euskara jalgi hadi mundura

Etxepareren hitzak abiapuntutzat hartuta Gasteizko BAGARE EUSKAL TOKIAK euskara eta euskal kultura mundura zabaltzeko nahi dituzte.

Aurreko urteetan egin bezala, aurten ere Bagarek oporrak euskaraz pasatzeko parada ederra eskaini nahi dizue.

Oraingo honetan Eskoziara joango gara: Ohi bezala bidaiaren helburuak honako hauek dira:

- euskaraz egitea.
- euskaldunok elkar ezagutzea.
- euskara eta euskal kultura zabaltzea.
- beste herri batzuetako hizkuntza eta kultura ezagutzea.

Horrela aurten bertoko euskaldunekin egon eta Eskoziako jendea ezagutuko dugu. Beraz, bidaia hauek egiteko ezinbesteko baldintza euskalduna izatea da.

Txangoak abuztuan burutuko ditugu. Bidaia autobusez egingo dugu eta kanpinetan lo egingo dugu. Abuztuan euskaraz eginez ondo pasatu nahi baduzu etor zaitez gurekin.

**Informazioa gehiago:**  
**BAGARE EUSKAL TOKIA**  
**Aiztogile (Kutxi) 62**

ba  
ga  
re  
euskal  
tokia

## UZTAILA. AGENDA

erakusketak &amp; lehiaketak &amp; ikastaroak &amp; mintegiak &amp; jardunaldiak

⇒ **JUAN ZELAIA IV.  
SAIAKERA SARIA (IRUÑA,  
2004)**

Euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak.

Antolatzailea: Pamiela etxea.  
948326535  
pamiela@pamiela.org  
Epea: abuztuak 31

⇒ **Jose Antonio Loidi  
ikerketa beka-2004**

Ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika.

Iraupena: 12 hilabete (9.020 euro).  
Aurkezteko epea: irailak 10-24  
Antolatzailea: Irungo Udala.  
Oinarriak, informazioa eta eskaera-orri eredu: www.irun.org

⇒ **BECERRO DE BENGOA  
XVI SAIKERA LEHIAKETA**

Antolatzailea-Informazioa: Arabako Foru Aldundia (945181818).  
Aurkezteko epea: irailak 14

⇒ **IGNACIO ALDEKOA  
XXXIII IPUIN LEHIAKETA**

Antolatzailea-Informazioa: Arabako Foru Aldundia (945181818).  
Aurkezteko epea: irailak 14

⇒ **ERNESTINA DE  
CHAMPOURCIN  
XV POESIA LEHIAKETA**

Antolatzailea-Informazioa: Arabako Foru Aldundia (945181818).  
Aurkezteko epea: irailak 14

⇒ **Pedro de Atarrabia XVI.  
Literatur Sariketa-2004**

(kontakizun laburrak)  
Informazioa: Atarrabiako Udala-  
Kultura Zerbitzua  
Epea: irailak 17

⇒ **"Euskal Gizartearen  
egoera" Saria**

Antolatzailea: Euskō Jaurlaritzza  
Informazioa: 945018069  
www.1euskadi.net/estudios\_sociolo-  
gicos  
Epea: irailak 24, 12.00etan

⇒ **Hezkuntza Iraunkorra.  
Master eta Ikastaroak  
Internet bidez. 2004-2005  
ikasturtea**

Ingurumena, Landa inguruneko Turismoa, Nazioarteko Merkataritza, Giza Eskubideak, Eusko Ikasgaiak, Hizkuntza Plangintza (HIZNET).  
Izen-emate epea: irailak 30  
Antolatzailea: Asmoz Fundazioa.  
Informazioa: 943212369  
asmoz@asmoz.org  
www.asmoz.org

⇒ **INKA TXIKIA**

SAURE argialetxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa.  
Atala: Gidoia.  
Oinarriak: www.ed-saure.com  
Epea: urriak 23

⇒ **INGURUMENARI  
BURUZKO ALEGIAK**

SAURE argialetxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa.  
Umore grafiko eta tira komikoaren atala.  
Oinarriak: www.ed-saure.com  
Epea: urriak 30

⇒ 3

**ARABAKO EUSKAL HOTSAK /  
ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA  
ERAKUSKETA:**

Uztailaren 3ra arte Iparralde gizarte etxean.  
Antolatzailea: EUSKHARAN.

⇒ 15 - 17

**GASTEIZKo 28. JAZZALDIA**

Mendizorrotzan, Principal antzokian, Gauerdiko jazz eta Kale jazz

⇒ 25

**BLUSA ETA NESKEN EGUNA**

**GOÑIKO EUSKAL UDALEKUAREN  
25. URTEURRENA**

**Kaixo Goñikide!**

Goñiko Euskal Udalekuen 25. urteurrena aitzakiatzat hartuta, ospakizun jai bat antolatzea pentsatu dugu, Goñin ibilitako lagun guztiok bildu eta guztiok elkarrekin egun eder bat igarotzeko; aspaldiko kontuei hautsak astindu eta etorkizunera begira jartzeko.

Jaia irailaren 18an ospatuko da Goñin, eta bertan, bertsolariak, jokoak, kontzertuak, erakusketa, familia bazkaria... izango ditugu. Umeentzat ere egitarau berezia egongo da.

Bertara joan nahi duenak 20\_(10 urtera arteko hurrek 10\_) sartu beharko ditu Kutxako 2101 0035 1501 2202 3484 (dorreako kultur elkarte) kontuan. Diru sarrerarekin batera jaira inguratuko den pertsonaren izen abizenak eta kontakturako telefono bat jarri beharko dira, eta tartean umerik bada, datu hori ere bertan zehaztu beharko da. Diru sarrera egiteko uztailaren 15a izango da epemuga.

Jaialdi hau Goñin ospatuko denez, bertara joateko autobusak egongo dira. Edozein kezka izanez gero, 653717082 edo 661326477 telefono zenbakiak zuen eskura izango dituzue, arratsaldeko 17:00etatik 19:00tara. Nahiago baduzue goni@euskaludalekuak.org posta elektronikoan ere erantzungo ditugu zuen kezka.

Besterik gabe, animatu guztiok jaiari parte hartzera; lagun zahar eta berriekin, Goñiren mende laurdena guztiok batera ospatu dezagun. Ez ahaztu ezagutzen dituzuen Goñikideak abisatzea!

Goñiko Euskal Udalekua

geugaste@grn.es

edurne begiristain

# 'IBILI MUNDUAN' BIDAIA-ERAKUSKETA

**M**artxan da berriz ere Gasteizko Udaleko Gazteen Argibideetarako Bulegoak antolatutako Ibili Munduan bidai erakusketa. Aurten bosgarren edizioa du ekimen honek, eta uztailearen 30era bitartean zabalik egongo da Plaza Berria dauden bulegoetan. 2004 Bidai Erakusketa edozein bidaiari buruzko informazioa eta aholkua eskaintzeko sortu da, gazteek beren bidaiak antolatu ahal izateko. Hala, ibilibiderik onenak, garraiorik egokienak, beharpenak lortzeko aukerak zein ostatu aukera desberdinak eskaintzen dizkie gazteei.

Erakusketa honetako helburua argia da, Gazteen Argibideetarako Bulegoko arduradun eta ekimeneko antolatzaile Milak azaltzen digunez: "Norberak egin nahi duen bidaiaren inguruan informazioa eta aholkuak ematen ditugu". Horretarako, Udal bulegoak dokumentazio osatua dauka gidaliburuez, aldizkariak, bidai liburuez, esku-orriak, mapez eta bestelako informazioaz osatuta. Horien bitartez, bidaiatzeko asmoa duen gazteak aukera izango du alor hauetako ahalik eta datu gehienak lortzeko: hala, munduko herrialde guztien informazioa, abentura kirolak, ibilibide alternatiboak, atzerrian eskaintzen diren hizkuntza ikastaroak, aldi baterako lanak atzerrian, kultura programazioak edota udako unibertsitateetako programak eskuratu ahal izango dituzte. "Gure asmoa da bidai bat antolatu nahi duen gazteak hona etorri eta informazioa eskuratzeko aukera izatea". Interneten bidez datu horiek guztiak eskuratzeko parada ere ematen du erakusketa honek, izan ere, Udalak hiru ordenagailu paratu ditu gazteen informaziorako bulegoetan.

Zerbitzu pertsonalera bideratutako poltsa ere badago; esaterako, txango bat egin nahi baina norekin egiterik ez duenak aukera dauka bidelagun bat bertan bilatzeko. Horretaz guztiaz gainera, Ibili Munduan bidai erakusketak oso baliagarriak diren zenbait txartel ateratzeko parada ere ematen du: nazioarteko aterpekin txartela (gazteentzat, helduentzat, familiarentzat edo taldeentzat), eta International Student Travel Confederation txartelak (ISIC, ITIC, IYTC).

Hori gutxi bailitza, erakusketara hurbiltzen direnak eta inkesta bat betetzen dutenek zozketa interesgarri batean parte hartuko dute. Parتهartzaileen artean, besteak beste, Azkenen eskainiko diren zenbait kontzertuetarako sarrerak edota kiroldegietarako bonoak zozketatuko dira. Beraz, gaztea bazara era biadaitu nahi baduzu hurbildu zaitez Bidai Erakusketara.

MUESTRA VIAJERA 2004 BIDAIA ERAKUSKETA

Gazteen Argibideetarako Bulegoa  
Oficina Municipal de Información Joven  
Ekainaren 1etik uztailearen 30era • 1 de junio - 30 de julio  
Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta 17:30etatik 20:30etara  
Lunes a viernes de 10:00h. a 14:00h. y de 17:30h. 20:30h.

IBILI MUNDUAN

CARRETERA  
Y MARCHA

Organiza / Antolatzaile:


Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
UdalaUZTAILAREN  
30era bitarteraTokia: Gazteen  
Argibideetarako  
Bulegoa. Plaza Berria,  
1- behekoa. GasteizOrdutegia:  
Astelehenetik ostiralera,  
10.00etatik 14.00etara  
eta 17.30etatik  
20.30etara.



Edu Zelaieta

## idazleen gurpila VII

# DEPENDE VII



- Josu Arrastik ihes egin duela? Bota nuen ozen, konturatu gabe.

- Zer esan duzu? Josuk ihes egin duela? Baina..., ez da posible! Gaur bertan egon naiz ni berarekin eta ikusi dut nola eramaten zuten bere gelara.

Telefonoaren beste aldeko ahotsa mututu zen. Ni erabat paralizaturik geratu nintzen, sakelakoa eskuan dardarka neukala. Bazirudien mundua ere gelditu egin zela gure aurrean.

- Eta orain zer egingo dugu, Edurne?

- Zer egingo dugun? Nork esan dizu zuri bat gehi bat bi direla beti?

- Nola bat gehi bat bi direla...?

- Bada, horixe! Honetan, kontu guztietan bezala, bakoitzak berea egitea du. Eta ni banoa. Ez dakit nora, baina banoa hemendik ziztu bizian. Orainxe bertan. Desagertu egingo naiz. Adio!

Pentsamenduak antolatzeke ahaleginetan ari nintzela, atearan danbatekoa entzun nuen. Edurne joana zen. Josu Arrasti libre. Eta ni artean 170 metro karratuko etxe hartan. Krimen perfektua gertatzeko ezin aproposagoa. Arazotxo bakarra zegoen: neu nintzen hildakoa.

Nire gauzak hartu eta ospa egin nuen handik. Korrika. Noraezean. Ez nekien zer egin. Ikarak ez zidan behar bezala pentsatzen uzten. Burutazioek kolpatzen zidaten gogoia behin eta berriz:

Maite zaitut, maite, maite.  
ez al duzu aditzen nire aienerik?

mendi garaienaren tontorretik  
etsipenez gainezka amodio eske.

Ezin nintzen etxera joan. Argialetxera ere ez. Neuk ere ihes egin behar ote nuen? Eta nora? Nola? Lau sos besterik ez nuen. Ordura arteko lagun ohiekiko desenkontruet, desamodiozko abenturek, azken batean, nire bizitza sozialaren zekenak faktura ederra pasatua zidan: ez nuen nora jo.

Itxaron pixka batean. Ez zen izango editorearen amarru zikin bat ni istorioan bete-betean sartzeko? *Benetakotasuna* maite baitzuen berak. Ez nintzen gorriak eta beltzak ikusten ariko *Tontorretik* tontorretik egiteko, ezta? "Istorio osoa, eta alde psikologikoa" esan zidan alu-zakilak. Osoegia ez ote zen dena. Hots, oso egia. Norena zen telefonoaren beste aldeko ahots hori? Eta garrantzitsuena, zergatik izan behar zuen egia?

Bat-batean ohartu nintzen ahots hura zela Josu Arrasti desagertu zelako aztarna bakarra. Frogarik ez baitzen. Irratia entzun behar nuen, edo telebista ikusi. Ezin nuen hurrengo egunera arte itxaron, biharamuneko egunkariak atera arte itxaron.

Hortaz, denda batera abiatu nintzen irrati tiki bat erosteko asmoz. Arratsaldeko seiak eta hamar ziren. Zeruak beltzera egina zuen nabarmen. Haizea harroko zebilen. Alde zaharreko kale kantoi baten bueltan esku batek heldu zidan atzetik. Ahoa estaliz zera xuxurlatu zidan belarri ondora: Rikardo, neu naiz.

## URDUÑA, ARABAN KOKATUTAKO BIZKAIKO BARRENDEGIA?

JOSEBA MIKEL AGIRRE OAR, ikertzailea

Urduña Bizkaiarekin lotuta egon zen laugarren aldia Pedro Ankerraren eta honen ugazanaia Enrike II.a Trastamara-koaren arteko gerra fratizidan (1369) izan zen. Azken hau bere benetako anaia-ekin, Don Tellorrek, elkartu zen, garai hartan ezkontza bidez Bizkaiko Jaun bihurtu zena, Haro leinuaren barnean gizonezko oinordekorik jaio ez zenez, oinordekoa izango zen emakumearekin, Joana de Lara Díaz de Harorekin, ezkondu baitzen. Horrek are gehiago indartu zuen Urduña Bizkaiko Jaurerriaren barnean, semerik izan ez zutenek, haien iloba bat aldi berean Bizkaiko Jauna eta Gaztelako erregea izango baitzen, Enrike Trastamara-koaren semea hain zuzen, Joan I.a izenpean (1379-1390).

EGOERA HAU ARE GEHIAGO FINKATZEN DA ISABEL KATOLIKOAK, JUAN laren HERENILOBAK, TREBIÑOKO KONDEAREN JOKABIDEA SARITUKO DU BERE AURKARI ETA GAZTELAKO KORORAKO ERREGEGAI JUANA LA BELTRANEJAREN ALIATUEN AURKAKO ZERBITZUENGATIK, BIZKAIKO DIRUZAIN NAGUSIA IZENDATUZ; GAINERA, URDUÑAREN BIZKAIKO JAURERRIAREKIKO ERANSTE HAUSTEZINA BAIEZTATZEN DUEN DOKUMENTUA IDATZIKO DU. ERREGE KATOLIKOAK 1476 URTEAN GERNIKARA JOATEN DIRENEAN (JAZOERA HAU BETIKOTUA DAGO BILTZAR ETXEAN DAGOEN MIHISE BATEAN, FERNANDO DE MENDIETAK EGINA), URDUÑAK 4 ORDEZKARI BIDLIKO DITU. ERREGKATOLIKOEN BAIEZTATU LEGEZ, 1480an URDUÑA BEHIN-BETIKO GERATU ZEN BIZKAIARI LOTUA.

Bitartean Aiarak Jaurerri independente izaten jarraitu zuen, bere foruei eutsi zien eta García Lopez de Ayala Mariskalaren bidez, Urduña bere menpean izateko azken ahalegina egin zuen; hala ere, ahalegin horrek porrot egin zuen; Arabako ermandade jaio berriaren barruan sartu zen, 1463an Rivabellosan egin ziren Batzar Nagusietan, Audio 1491 arte kanpoan gelditu bazen ere. Hasierako urteetan, ermandadearekin izan zituen harremanak nahiko estilutsuak izan ziren, baina denborak aurrera egin ahala, Aiara familia-koek pisu handiko postuak bete zituzten probintzia horretan. Baina hori beste kontu bat da.

(itzulpena: aztiri & geu)

## hausnarketa ANTSO III HANDIA, EUSKALDUNEN ERREGEA

Oña Burgos herrialdeko herri txiki bat da. Bertan maiatzaren 15ean, ekimen bitxi bezain harrigarria gertatu zen. Iruñeko udaletxeko alkatea eta zenbait zinegotzi, beste zenbait mandatarirekin batera, Burebako herri horretara joan ziren, festa giroan. Zer ospatu behar zuten bada agintari horiek guztiak? Gezurra badirudi ere euskaldunek inoiz izan duten erregerik handiena, bertan lurperaturik dagoena, gogoratzea zen ospakizunaren zioa. Izan ere, 1004. urtean koroatu zuten Antso III Handia. Bere erreinaldian, 31 urtez iraungo zuena, lehenengo aldiz, euskaldunak baturik egon ziren. Ibn Haiyán garai hartako historialari musulmandarrak dioenez Antso III "euskaldunen nagusia" zen. Aipatutako agintari horiek ez zuten hori ospatu, noski, baizik eta, historia berrantolatuz, euskaldun eta izaera irekia zuen errege honen ondarea ukatzera joan ziren. Batek baino gehiagok pentsatuko du bere artean, hamaika ikusteko jaioak garela eta zinez, beste behin, gure begi aurrean frogatzen da.

Errege Espainazale zela diote baina egia dena da Gaskuñako konderriarekin lokarri oso estuak izan zituela; halaber, Frantziako erregearekin harreman zuzenak

izan zituen eta baita Cluny Abadiako Odilon abadearekin ere. Antso III Handiaren erreinua aurrerazale eta europarra izan zela inolako dudarik ez dago. Kontua da jakitea zerk bultzatu zituen, orduan, halako omenaldia egitera. Agian, Newtonen lege fisikoan aurki dezakegu erantzuna: edozein gorputzek indar baten eraginpean kontrako indarraz erantzuten du. Beraz, alde egiten ari zaiena indar osoz bereganatzen saiatzen ari dira.

Azken batean, kontrara frogatu nahi izate horrek adierazten du errege garrantzitsua izan zela gure aberirako zeren eta Marxek esaten duenez: "Gizakiaren anatomian ikusten da tximinoarena eta ez alderantziz". Hau da, gaur eguneko Euskal Herriaren bizi nahian ikus dezakegu Antso III Handiaren nagusitasuna eta balioa. "Omenaldia" egin ziotenek, berriz, atzekoz aurrera egin nahi dute; erregearen handitasunez baliatuz eta historia desitxuraturaz, gaur egungo Estatu espainarraren egoera tamalgarria salbatu nahi dute. Alperrik dabilta, askatasunaren haizea aspalditik jotzen ari baita gure haran eta mendietan zehar.

Koldo Ortiz de Ginea

(2004ko ekaina-uztaileko Laia aldizkarian argitaratua)

## gaur ARGANTZUNGO IKASTOLAK ATEAK ZABALDU DITU

Orain dela hiru urte, ekainaren 17an konkretuki, Araba Euskaraz-ek Argantzun herrian bere jaia ospatu zuen. Ez zen festa bakarrik izan, jaiegunaren atzetik egitasmo handi bat zegoen. Egun horretan ikastolaren lehenengo harria jarri egin zen eta harriarekin batera Argantzungo gurasoen ilusioa hemengo umeen etorkizuneko bidea irekitzen hasi zen.

Beste aldetik, 2002. urtean, Argantzun eta Trebiñoko udalek, hizkuntza ikerketa egitea agindu zuten. Ikerketaren emaitzek argi eta garbi adierazi zuten Trebiñoko gurasoek beren umeentzat hezkuntza euskalduna nahi zutela. 2002.eko irailean Argantzungo eskolak atek ezin izan zituen ireki, umerik gabe geratu baitzen; enklabe ume gehienak Gasteizera joan ziren ikastera. Argantzun umez josita dago baina eskolak gurasoen nahiak ez zituen bete arrazoi simple batengatik: eskolak gaztelaraz irakasten du. Hori dela eta, beren seme-alabak Gasteizera eraman zituzten.

2003.eko maiatzean Ikastola berri bat osatzeko lehenengo bilerak hasi ziren. Deialdia Ikastolen Federazioak eta Argantzungo Udalak egin zuten. Hamalau umeren elkartzera lortu zuten eta urriaren 27an zabaldu zuten Argantzunen bi gelako Ikastola. Batean urte batekoak daude eta bi urtekoak bestean. Ikastolak goizeko 8.15etatik 18.00ak arteko ordutegia, jantoki zerbitzua eta lo kuluska botatzeko aukera eskaintzen ditu. Bi irakasle daude: Ekaitz eta Susana. Saiola ere lan horretan aritu da beharrezkoa izan denean. Gazte eta jatorrak dira eta ilusio handiz hasi dira lan berri horretan. Gurasoekin harremanak ezin hobekak dira eta egitasmoa gurekin batera osatzen ari direla azpimarratu nahi dugu. Herriko ikastola berri batean lan egitea oso aberasgarria da, baina lan ugari egin behar da eta batzuetan nekagarria izan daitekeela kontuan hartu behar dugu. Gure umeak oso gustura joaten dira ikastolara eta gure ustez haiek

emango dizkigute behar ditugun indar guztiak.

Datorren ikasturtean 3-6 urteko zikloa zabalduko dugu eta horretarako eraikin berri bat egin behar da. Badakigu erraza ez dela izango. Alde batetik, Gaztela-Leongo Batzarrek laguntzarik ez emateaz gain, bere eskuan dauden oztopo guztiak jarriko dizkigu. Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzak, Trebiñon gaudenez, laguntza emateko legezko biderik aurkitzen ez duela dio. Beraz, beste askotan bezala, beti bezala ez esateagatik, arazoak guk konpondu beharko ditugu.

Hala eta guztiz ere, Ikastolen Federazioa, Argantzungo Udala eta Gurasoen Elkarteak egitasmoa aurrera eramatearen alde gaude, laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik. Behar diren ahalegin guztiak jarriko ditugu geure egitasmoan eta beharrezkoa bada Gurasoen Elkarteak Ikastola berriaren eraikuntzaren bultzatzaile izateaz ere arduratuko da.

Halaber, Trebiñun, Franku herrian konkretuki, haurtzaindegi berri bat ireki dutela ezagutarazi nahi dizuegu. Helburua bera da, 6 urte arte, Trebiñoko umeek euskaraz ikasteko aukera izango dute.

Gaiaz aldatuz, Añanako Laia aldizkarian berri hau ematea garrantzitsua dela uste dugu, Añanako umeentzat ere aukera delako; Tui eta Sagastietako umeak gure artean baitaude. Bai Erribera Goitia bai Erribera Beitiako gurasoek 0-3 urteko umeentzat hezkuntza eskaintzarik ez dagoela salatzen dute. Esan digutenez Argantzunen aurkitu dute behar zutena.

Bukatzeko, jakinarazi nahi dizuegu informazioa ematen jarraituko dugula, iradokizun guztiak kontuan izango ditugula eta proposamenak jasotzeko irekita gaudela. Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hauxe duzue ikastolaren telefonoa: 945373185.

Pilutxi Ansotegi. Argantzungo gurasoen batzarraren izenean.

(2004ko ekaina-uztaileko Laia aldizkarian argitaratua)

## NEUBAT TALDEA: "DANTZALDIKO ERREGINAK"



Talde gasteiztarraren lehenbiziko diskoa da, "Dantzaldiko erreginak", haatik, ez Neubat izena musika munduan entzuten den lehen aldia. Bost urte baitira izen honekin musika egiten dihardutela gazteek. Euren ibilbidean, bakarka zein taldeka aldaketa ugari egon badira ere, oraingoan inoiz baino gogotsuago eta indartsuago datoz Metak diskoetxearen zigilupeko lanarekin.

Lasaitasunez eta denboraz hartu du taldeak bere lehen diskoaren grabazioa. Taldeko abeslari Kandak dioen legez, 'kanta asko geratu dira bidean, baina presa gabe aritu gara; izan ere, jendeak gustukoa izango zuen lana aurkeztu nahi izan dugu'. Grabaketa Eibarko Legarre musika elkartearen burutu da eta kolaborazioen artean Sorkun, Kokein eta Sharon Stoner-enak, besteak beste, daude. Guztira 13 abesti eta cd-rom pista bat biltzen du "Dantzaldiko Erreginak" diskoak. Taldeak Madrilgo Un Lugar en el Cine produkzio-etxearekin elkarlanean "Basa-mortu motela" kantuaren bideoklipa osatu du.

Neubat taldearen ibilbidean zehar aldaketak ugariak izan dira hasi zirenetik, bai estiloan zein partaideengan. Batetik,

teklatuak eta ahots berria entzun daitezke lan honetan, Liberenak alegia. Neskaren eskuhartzeak nolabait taldearen estiloa arindu eta zehatu du aurreko bi demoekin alderatuz. "Lehenbiziko maketarekin taldea taxutuz joan ginen eta bigarrenarekin gure ikuspuntua eta joera argiago geratu zen -dioskute-. Azken honetan aldiz, Liberen teklatuak eta ahotsa izan dira aldaketa nabariena". Bestetik, estiloari dagokionez,

rock gogorrean sailka badaiteke ere, musikariek diotenez, "melodikoa ere badela esan daiteke. Baina dena den, estiloa definitzeko orduan bakoitzak bere berezko basamortutik ekarritako eraginak ditu eta lan honetan guztionak bildu ditugu".

Hortaz, Neubat taldeak bost urteotan ikasitakoa ondo jasoar aurkeztu du cd berri honetan; Atxux (baxua) eta Kanda (ahotsa eta gitarra), Sorkunen "Onna" diskoan parte hartzeaz gain, bere kontzertuan ere aritu baitziren 2003. urtean; norbanako taldekideen esperientziaz osatua eta egina (Ima -bateria- eta arestian aipatu Libe), "Dantzaldiko erreginak" diskoak Neubat taldeari etorkizun oparoa ekar dakiok.




**ORTOPHONK:**  
**ORTOPHONK-EN DISKO BERRIA: "3+3"**  
3 KANTU BERRI + CUBO, JAVI P3Z ETA BRUNO  
MARTELLI TRIO-REN BERARIAZKO HIRU BIRNAHASKETA  
Laster elkarrizketa Geu aldizkarian



## KARLOS GIMENEZ PIANOJOLEA: "12 GELTOKI", bakarkako lehen lana

Bederatzi urterekin Rolling Stones eta Beatles bezalako garaiko fenomeno eritmorra batera jotzen hasi, baina Frantziako Impresionismoa ezagutu bezain laster txundituta geratu zen Karlos Gimenez eta musika ikastea erabaki zuen. Valentzian eta Bartzelonan ikasketak egin ondoren, Euskal Herrira bueltatu eta Orfeoiarekin grabatzeko aukera izan zuen gipuzkoarrak. Pianojole honek ibilbide luzea dauka eta musika konposatzeaz gain, musika produktore ere bada eta moldaketak ere egin izan ditu. Egun Belardi taldeko partaide izanik, Karlos Gimenez curriculumean Erramun Martikorena, Xabier Lete, Imanol, Pier-Paul Berzaitz, 21 Japonesas edota Doctor Deseo izeneko taldeekin eta musikariek kolaborazioak egin izana irakur daiteke. Elkarlanean diskoetxearen eskutik, alta, orainoan pianojolearen lehenbiziko lana iritsi da, "12 geltoki".



**-Kolaborazioetan ibili zara beti eta orain zure bakarkako lehen diskoa atera duzu, nola sortu zen ideia hau?**

Ordiziako emakume talde batek eskatu zidan behin kontzertu bat eskaintzea eta hortik sortu zen ideia. Emakumea bizitza-emailea izanik egitasmoa ideia horretatik garatu nuen. Bizitzaren pasarte ezberdinak jorratuz egitaraua osatu nuen. Uler zedin, zerbait sinplea eta konplikaziorik gabekoa egitea erabaki nuen. Hortaz, pianoarekin aritzea bakarrik hobetsi nuen. Gauza batzuk diskorako espresuki konposatu ditut, beste batzuk berriz, eginak nituen.

**-"12 geltoki". Nola definitzen duzu zure azken lan hau?**

Hamabi begirada dira, bizitzaren garai eta adin ezberdinetan gizakiaren barruari eginikoak, alegia. Bertan biltzen dena nik besteengan ikusitako sentimenduak dira. Nik lan honetan jasotako materialarekin gizakiekin harremanetan jartzea bilatu nahi izan dut eta uste dut emozio aldetik lortu dudala. Euskaraz eta gazteleraz eginiko eta hautaturiko poesiak ere sartu ditut. Ez nuen nahi kontzertuak serioak izan zitezen eta ahotsaren indarra gure arteko lotura tresna izan da, nolabait. Jendea erlaxatzen

da eta isiltasunarekin batera arreta ere eskuratzen da. Musika iradokitzailea dela esango nuke disko honetan aurki daitekeena. Norberak esan beharko luke nola interpretatzen dituen kantak, nik ideia zabalik uzten dut eta.

**-Bigarren bakarkako diskorik ateratzeko asmorik duzu?**

Horretan zalantzan nago. Laukote batekin aritzea egokiago ikusten dut hurrengo batean, batez ere aldatzearren, baina hori ikusiko da.



# Budapest

## alde handiko hiriburua

### Datuak

Hungariako hiriburua.

Biztanleria: 1.900.000.

Hizkuntza: magyar edo hungariar.

Txanpona: forinto (Euro bat = 250 ft).

Garraio publikoa: Tranbia, metro, autobusak, trolebusak eta trenak daude, hiri osoa zeharkatzen dutenak.

### Ezaugarriak

Danubio ibaiak bi zati oso desberdinetan banatzen du herria. Mendebaldean Buda kokatzen da, mendi zonaldea eta hiriarren sorrera eskaintzen dizkiguna; Erdi Aroko ezaugarriak eta, dudarik gabe, izugarriena da hemendik beste aldeko (Pest) bistak.

Ekialdean, Pest, inperio austro-hungariar eta komunismo garaia eraman zuen lekua. Hiriarren eguneko zein gaueko giroa pil-pilean aurkituko duzu. Váci utca da bere kale ezagunena, denda, jatetxe eta tabernaz josita. Bestaldetik, Andrassy utca da Budapesteko kale dotore eta bereziena, bertan Opera dago eta 'vip' denda eta lokal asko. Kale

honek Városliget-era eramango gaitu; hau parke erraldoia dugu, kanpoko terma bainutegi eta guzti.

Hala ere, zortzi zubik lotzen dute hiria ibaiaren zeharkatuz. Danubiok, hiria zatitu beharrean, orotasun izugarria ematen dio hiriarri, 'postal' izugarria sortuz.

### Ez galtzekoa

• **BUDAN:** Erret jauregia eta inguruak. Gazteluen auzoa. Gellért mendia. Víziváros, Óbuda eta Aquincum.

• **PESTEN:** Parlamentua, Esteban basilika, Opera, Hungariako historia museoa, Judutarren auzoa eta sinagoga. Merkatu zentrala. Városliget parkea. Margarita irla.

• **HIZKUNTZA:** Magyar euskara bezala oso berezia da, ez du zerikusirik europako beste hizkuntzekin; hungariarrek asko eskertzen dute hitzen bat erabiltzen baduzu haiekin.



• **PARLAMENTUA:** Hungaria nazioaren independentziaren sinbologia. Egiten dituzten bisita gidatuak oso ulergarriak dira. Hungariako historia ulertzeko derrigorrezkoa.

• **OPERA:** egundoko eraikuntza, batez ere barrualdean, ederra. Budapesteko garrantzi handiko garaiekin sinbologia.



• **METRO TXIKIA (Foldalatti):** liluragarria. Andrassy utca kalea zeharkatzen du. Londresekoa izan ezik, Europako metro zaharrena dugu hau. Dekorazioak eta eraikuntzak bere garaia eramanen gaituzte.



• **TERMA-BAINUTEGIAK:** turkoek beren ezaugarri hau utzi zuten Budapest zehar. Askok eta askok daude bisitatzeko, agian ezagunenak eta turistarentzat erosoenak Gellérttekoak dira. Ezin zara itzuli hauetako batean egon barik.



## Bertakoari so!



ERLANTZ URTASUNen  
txokoa

## Araba, euskalduna bezain nafarra

Agur eta erdia, irakurle. Nabarralden ari garenek erraiten ohi dugu gauza bat dela Euskal Herria eta bertze bat Nafarroa. Izan ere, gure irudiko kultura, hizkuntzaz ari garenean Euskal Herria da. Estatalitateaz ihardunez gero, berriz, Nafarroa eredu. Hau ez da harrigarria: Suomi-Finlandia, Magiar-Hungaria, ... Europan, izaitekotan, arraroa baino, arruntena baita horrelako bikoizketa kausitzea. Telebista piztu eta "galiar selekzioa", "britainiar ingelesak", "Asterix Helvetian (Suitzan)", Eskozia Alba omen zen, lusitaniarren fado portugaldarrak, ...

Bada, hainbaten irudiko Nafarroa ez da deus eta Euskal Herria oraintxe eginiko asmakizun "nacionalista" litzateke. Hots, abertzale baino, "naxionalista". Zorionez bi nafar, bi euskaldun, Leizarraga eta Axular, aspaldiko XVI-XVII mendeetan Euskal Herria idatzi zuten. Beharrik. Eta, honi loturik, Iparraldean euskaraz gehiago idazten zela, Euskal Herriaren irudia bertze era baterat hartzen zela eta abar, era zintzoan izanik ere, ildo honetarik hausnarturiko gogoeta frankotan hedatu da gure artean.

Ustekabea, XVI. mendeko Lazarraga arabar idazleak, haatik, hondar urteotako altxorrik preziatuena eskaini digula dirudi. Bera baita, uneotan dakigunaren arabera, Leizarraga eta Axular aurretik Euskal Herria idatzi zuen lehena. Baina Mendebaldean, Sartaldean, Arabako Lautadan. Hau pagotxa Lazarraga agertu izana! Memento "Euskal Herria" kontzeptuak Araban du sehaska. Euskararen berreskurapenaren ikurra. Ez da harritzekoa, beraz, nafar estatalitatearen berreraikuntzak ere Araban indar handia izaitea. Nabarralde bera sustatzen dutenak Burgosko mugetan, Laudion, Gasteizen, Agurainen, Uda-Trebiñun edota Errioxan baitira jadanik. Euskal Herria eta Nafarroa, betidanik bat eginik, Arabari so.

## GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

# ONTTO ETA OTARRAINSKA BRICK-A

### OSAGAIK:

#### ❖ Otarrainska

- Onttoak
- Kipula
- Piper berdea
- Brick pasta orriak

#### ❖ Ontto zoparako

- Onttoek konfitatutako olio
- Gurina
- Kipulina
- Txakolina
- Onttoak
- Esnegaina
- Piperbeltz beltza aleka

#### ❖ Hornitzea

- Otarrainska buruak ontto oliotan beratuta
- Tempura edo antzerako oreren bat
- Mendabeltz orriak



### PRESTAKUNTZA

#### Brick-a:

- Kipula eta piper berdea juliana eran xehatu, eta ondoren poliki-poliki gorritu oliba olio eta gatz apur baten laguntzaz, erabat bigundu arte. Kendu erabat gelditzen zaion olio guztia.

- Otarrainskak zuritu.

- Onttoak oliba oliotan konfitatu mantso-mantso, erabat bigundu arte. Gero, olio guztia xukatu ondoren, xerra finetan ebaki.

- Kipula apur bat, otarrainska bat eta ontto gutxi batzuk, gatzez atondu ostean, brick orri heren batean bildu, zotz luze batez zulatu, eta gurinez igurtzitako azpil batean jarri.

#### Zopa:

- Kipulina fin-fin pikatu ondoren, ontto olio eta gurinetan gorritu. Ondoren ontto batzuk gehitu, bai eta txorrotada eder bat txakolin-ardo. Esnegaina, gatza eta piperbeltz beltz ale batzuk gehitu. Ordu erdi su txikitan egosten eduki ostean, tourmix-ez txikitu eta ondoren iragazki baten laguntzaz ondo bahetu.

**Zerbitzatzeko garaian,** Brick-a labean sartu 180°Ctan; bost bat minutuz, ondo gorritu arte.

#### AURKEZTEA

- Otarrainska burua, ondo zanpatuta, tempuratik pasatu eta oliotan frijitu. Plater sakon batean, burduntzali erdi bat zopa ixuri; gainean eta erdi-erdian brick-a jarri; bere alboan otarrainska burua; eta frijitutako mendabeltz orri batekin apaindu.

## UDARAKO IRAKURKETA

### URATXIMA KEMENTSUA (komikia)

Nathalie Bodin

Sauré argitaletxea-2004

Japoniako herriska honetan, "kementsua" izatea oso garrantzitsua da, eta frogatu beharra dago... Erronkak onartuz eta... bizia bera arriskuan jarriz! Eta Uratximak alferreko arriskueta erori nahi ez duenean koldartzat hartzen dute! Baina berari bost axola horrek: kemena beste zerbait da berarentzat. Horixe ikasi beharko dute laster "kementsuek"!




### POPOTKA SIUX TXIKIA (komikia)

Iktomiren irakasgaia

Chauvel-Simon

Sauré  
argitaletxea  
2004

Egun hartan,  
Iktomi, armi-arma  
gizona, oso-oso  
gose zen.  
Ordokian barrena  
zebilela, musika  
bat entzun zuen  
urrunean...



## KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / [geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es)

Aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

Ordutegi guztiak

Goizez

Ilune. 945010322

Arratsaldez

Patxi. 652743205

Gauetz

Nerea. 658733934

Asteburuak


Nagore. 945281124

Marta. 606415235

Gau batez (afariak, ezkontzak,...)

Miryam. 656761588

**EUSKARA** eta **MATEMATIKA** klaseak ematen ditut udan. EGA eta Hizkuntz Eskolako euskara-go mailako agiria dauzkat. 696011868 (ANE)



**LOTSAGARRIA!**  
GAUR EGUN KALEAN  
IBILTZEA BELDURGARRI  
BIHURTU DA...

"ARRIAGAKO PARKEAN BENETAN IKUS-ENTZUNDAKOAK"



KOLORE  
GUZTIETAKOAK  
IKUSTEN DIRA!



GURE ETXETIK  
KANPORATUAK  
IZANGO GARA, ETA  
GAINERA, GURE  
ERAKUNDEEK...



...DIRU-  
LAGUNTZA  
OPARITZEN DIETE... ETA  
OKERRENA: GURE BILOBEK  
ETXEBIZITZARIK EZIN LORTU  
ETA HAUEK, PISUA  
DOHAIN JASOTZEN  
DUTE!!



GAIZKILEAK  
PRIMERAN BIZI  
DIRA...!!!

AŠKI DA!!!  
A ZE-NOLAKO GEZUR  
ETA TXORAKERIA  
SORTA BOTATZEN  
ARI ZAREN!



ZURE HERRIKATIK  
NOLA ETA ZERGATIK  
ALDE EGIN ETA  
HONANTZ ETORRI  
ZINELA AHAZTU  
AL DUZU?

AAAH...  
ITXAROPENA,  
ZEIN GAUZA  
EDERRA...

# HAR EZAZU EUSKARAREKIKO KONPROMISOA



18 EURO

URTE OSOAN

945 222 153

geugaste@grn.es

ARABA OSOKO  
EUSKARA HUTSEZKO  
HILABETEKARI BAKARRA.  
ZAINDU DEZAGUN, BADA!

## IZAN ZAITEZ

# GEU ALDIZKARIKO HARPIDEDUN!!